



culture 21

Agenda 21 for culture
Agenda 21 de la culture
Agenda 21 de la cultura

Hiri eta Toki Gobernu Batuak

Kulturaren 21 Agenda



Ajuntament de Barcelona
Barcelona Cultura



United Cities and Local Governments
Cités et Gouvernements Locaux Unis
Ciudades y Gobiernos Locales Unidos

HIRI ETA TOKI GOBERNU BATUAK
Kulturaren 21 Agenda



Ajuntament de Barcelona
Barcelona Cultura



United Cities and Local Governments
Cités et Gouvernements Locaux Unis
Ciudades y Gobiernos Locales Unidos



culture 21

Agenda 21 for culture
Agenda 21 de la culture
Agenda 21 de la cultura

Kulturaren 21 Agenda hirien kultura garapenaren inguruko nazioarteko agiria da, eta giza eskubideen, kultura aniztasunaren eta iraunkortasunaren printzipioak ditu oinarri.

Kulturaren 21 agenda adierazpen bat da eta 5 gai nagusiren inguruko 67 artikuluk osatzen dute: (a) kultura eskubideak, (b) iraunkortasuna eta lurraldea, (c) ekonomia, hedabideak eta kultura industriak, (d) gizarteratzea nahiz parte hartzea, eta gobernantza.

Kulturaren 21 Agenda Bartzelonan jaio zen, 2004an, Hiri eta Toki Gobernu Batuak (HTGB) osatzeko prozesuaren baitan, eta kultura zein garapenari buruzko ezagupenak agiri bakarrean biltzen ditu. Hiri eta toki gobernua batuak mundu erakundeak Kulturaren 21 Agenda hartu zuen bere kultura programen erreferentzia agiri gisa, eta bere gain hartu zuen onetsi ondorengo prozesua koordinatzeko zeregina.

HTGBko kultura batzordeak koordinatu egiten ditu Kulturaren 21 Agenda zabaltzeko eta abian jartzeko lanak eta, horretaz gain, garapen prozesuen muinean kultura jartzen duten hiri, tokiko gobernu eta sareak biltzeko gune ere bada. Kulturaren 21 Agendak kultura politikei buruzko eztabaidak sustatzen ditu mundu osoan: hiri eta tokiko gobernuek Kulturaren 21 Agenda baliatzen dute haien kultura politikak prestatu eta abian jartzeko, bai eta kulturak iraunkortasunaren laugarren zutabe gisa duen zeregina sustatzeko ere. Halaber, Kulturaren 21 Agenda hiriek kultura-globalizazioari egiten dioten berariazko ekarpenak jo daiteke.

Dokumentu hau Gasteizko Udaletxean itzuli da.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Udalerri batek nola egin dezake bat Kulturaren 21 Agendarekin?

Mundu osoko 450 hiri, tokiko gobernu eta erakunde inguruk egin dute bat Kulturaren 21 Agendarekin. Webgunean eskuragarri dago eguneratutako zerrenda.

Tokiko gobernu batek Kulturaren 21 Agendarekin bat egiteak garrantzi handia du: hiri politiketan kultura gakoa izan dadin herritarrekiko konpromisoa adierazten du, eta aldi berean, mundu osoko hiri eta tokiko gobernuetako elkartasun eta lankidetzarako borondatea erakusten du.

Kulturaren 21 Agendari atxikitzeke agiri tipoa eskuragarri dago webgunean. Atxikipenen eguneratzea ziurtatzeko asmoz, udalbatzaren edo udal kontseiluaren erabakiaren kopia jarraian adierazten diren lekuetara igortzeko eskatzen zaie hiri eta tokiko gobernuetara:

- Hiri eta toki gobernu batuen mundu idazkaritza: info@cities-localgovernments.org
- Kultura batzordeko idazkaritza: info@agenda21culture.net

Halaber, ebazpenaren kopia beste hauetara bidaltzea gomendatzen da:

- Norberaren herrialdeko hirien edo udalerrien elkarteko idazkaritza nagusira
- Norberaren herrialdeko Kultura Ministeriora

Nola abiaraz daiteke Kulturaren 21 Agenda udalerri batean?

Kulturaren 21 Agendak kulturaren ikuspegia epe luzera izatea ahalbidetzen dio edozein hiriri, haren garapenaren funtsezko zutabe gisa. "Kulturaren 21 Agenda tokian abiarazteari buruzko aholkuak" izeneko agiriak kontzeptu eta iradokizun orokorrak jasotzen ditu, eta lau tresna zehatz iradokitzen ditu:

- Tokiko kultura estrategia
- Kultura eskubideen eta erantzukizunen gutuna
- Kultura kontseilua
- Kultura eraginaren ebaluazioa

"Kulturaren 21 Agenda tokian abiarazteari buruzko aholkuak" izeneko agiria webgunean eskura daiteke.

Nola izan kultura batzordeko kide?

Batzordean izena emateko inprimakia eskatu behar da honako helbidean: info@cities-localgovernments.org

Kulturaren 21 Agendaren edukiak

Kulturaren 21 Agendak 67 artikulua ditu, hiru ataletan banatuak.

Oinarrien atalak (16 artikulua) kulturak giza eskubideekin, aniztasunarekin, iraunkortasunarekin, demokrazia parte hartzailearekin eta bakearekin duen lotura azaltzen du. Konpromisoen atalak (29 artikulua), berriz, tokiko gobernuen eskumenen esparrua lantzen du, eta kultura-politikak zentralizatzeko eskaera zehatz mehatz azaltzen du. Azkenik, gomendioen atalean (22 artikulua) kulturaren garrantzia jorratzen da, eta garrantzia hori programetan, aurrekontuetan eta gobernuko (tokiko, nazio/estatukoak) maila desberdinen organigrametan aitortua izan dadin eskatzen da, bai eta nazioarteko erakundeek garrantzia hori aitortu dezaten ere.

Kulturaren 21 Agendaren edukiak gaien arabera ere labur daitezke:

Kultura eta giza eskubideak

- Kultura eta giza garapena. Kultura aniztasunak "pertsona guztiak gehiago asebeteko dituen izate intelektual, afektibo, moral eta espiritual" izaten laguntzen du.
- Kultura eskubideak giza eskubideetatik bereizi ezin dira. "Inork ezingo du kultura aniztasunaren aitzakiarekin nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideen kontra jo, ez eta haien zabalpena mugatzeko ere".
- Adierazpen askatasuna bermatzeko mekanismo, tresna eta baliabideak.
- Sortzaile eta artistak hirien erronkekin loturiko konpromisoak bere egitera gonbidatzea, bizikidetzaren eta bizi-kalitatea hobetzeko, herritarren sormen eta kritika gaitasuna zabaltzeko.

Kultura eta gobernantza

- Kultura gizartearen muinean egotea. Kultura politiken zilegitasuna.
- Tokiko garapenaren kalitateak kultura-politikak eta bestelako politikak batera joatea eskatzen du.
- Tokiko gobernantza: herritarren, gizarte zibilaren eta gobernuen erantzukizun bateratua.
- Ebaluatzeko mekanismoen hobekuntza, kulturari dagokionez. Kultura adierazleen sistema.
- Sareen eta nazioarteko garapenaren garrantzia.
- Tokiko gobernuak kultura politiketan eta nazio programetan parte hartzea.

Kultura, iraunkortasuna eta lurraldea

- Kultura aniztasuna ezinbestekoa da gizadiarentzat, biodibertsitatea naturarentzat ezinbestekoa den legez.
- Kultura adierazpenen aniztasunak aberastasuna dakar berekin. Kultura ekosistema zabalaren garrantzia, hain zuzen ere jatorri, eragile eta eduki anitzekoa.
- Elkarriketa, bizikidetzaren eta kulturartekotasuna, herritarren arteko harremanen oinarritzeko printzipio gisa.
- Espazio publikoak kultura espazio gisa.

Kultura eta gizarteratzea

- Unibertso kultural eta sinbolikorako sarbidea bizitzaren etapa guztietan.
- Adierazgarritasuna giza duintasunaren eta gizarteratzearen oinarritzko dimentsio gisa, generoa, jatorria, pobrezia edo gutxieteko beste edozein arrazoi kontuan hartu gabe.
- Ikusle gehiagorengana heltzea, eta kultura alorreko parte hartzea sustatzea herritartasunaren elementu gisa.

Kultura eta Ekonomia

- Kulturaren dimentsio ekonomikoa aitortzea. Kulturak aberastasuna sortzeko eta ekonomia garatzeko faktore gisa duen garrantzia.
- Kultura hainbat iturriren bidez finantzatzea: diru-laguntzak, arrisku funtsak, mikrokredituak edo zerga pizgarriak, hain zuzen ere.
- Kultura industria eta tokiko hedabideen zeregin estrategikoa, tokiko nortasunean, sormen jarraipenean eta enplegu sorreran laguntzen baitute.
- Kultura ekipamenduen eta ezagupenarekin lan egiten duten erakundeen arteko harremanak.
- Egileen eta artisten eskubideekiko begirune eta bermea, bai eta haiei bidezotasunez ordaintzea ere.

agenda21culture.net webgunean baliabide guztiak daude jasota, hainbat hizkuntzataraz itzulia dauden agiri, artikulua, argitalpen, berri eta mintegiak barne.

KULTURAREN 21 AGENDA

Hiri eta tokiko gobernuen konpromisoa kultura garatzeko

Guk, munduko hiri eta tokiko gobernuok, giza eskubideekin, kultura-aniztasunarekin, iraunkortasunarekin, demokrazia esku-hartzailearekin eta bakerako baldintza sortzearekin konpromisoa hartu dugunok, Bartzelonan 2004ko maiatzaren 7 eta 8an bilduta, Porto Alegre Gizartean Barneratzeko Tokiko Agintarien IV. Foroan –Kulturaren Forum Unibertsalaren barruan-, Kulturaren 21 Agenda hau onartzen dugu kultura-politketarako dokumentu orientatzaile gisa, eta gizakien garapen kulturalaren alde egiteko.

I. Oinarriak

1. Kultura-aniztasuna gizadiaren ondare nagusia da. Milaka urteko historiaren emaitza da, herri guztiek beren hizkuntza, irudimen, teknologia, praktika eta kreazioen bidez egin duten ekarpenaren ondorioa da. Kulturak hainbat forma hartzen ditu, beti gizarte eta lurraldeen arteko harreman-eredu dinamikoei erantzuten dietenak. Kultura-aniztasunak pertsonak gogobetetzen dituen bizitza intelektual, afektibo, moral eta espiritual bultzatzen du (UNESCOn Kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala, 3. artikulua), eta hiri eta gizartearen errealitatea eraldatzeko funtsezko osagaietako bat da.
2. Gai kultural eta ekologikoen artean antzekotasun politiko argiak daude, biak, kultura eta ekologia, gizadiaren ondasun komunak baitira. Garapen ekonomikoaren ereduak gizadiaren baliabide natural eta ondasun komunekin harrapakariegia dela egiaztatzen sortzen da kezka ekologikoa. Río de Janeiro, 1992, Aalborg 1994 eta Johannesburgo, 2002 funtsezkoak izan dira gizadiaren erronka nagusietako bati, hau da, iraunkortasun ekologikoari erantzun nahi dion prozesuan. Gaur egun begi bistakoa da munduko kultura-aniztasuna arriskuan dagoela mundu osorako estandarizazio baztertzailerearen ondorioz. UNESCOK hauxe baieztatzen du: “Kultura aniztasuna truke, berrikuntza eta sormenaren iturri da eta gizakiontzat oso beharrezkoa, izaki bizidunentzat biodibertsitatea den beste” (UNESCOn Adierazpen Unibertsalaren 1. artikulua, kultura-aniztasunari buruzkoa).
3. Tokiko gobernuak eskubide kulturalak giza eskubideen parte banaezina direla aitortzen dute, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalari buruzko Nazioarteko Ituna (1966) eta UNESCOn Kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (2001) hartzen dituzte oinarritzko erreferentzia gisa. Hala bada, gizabanako eta komunitateen askatasun kulturala demokraziarako funtsezko baldintza dela berresten da. Inork ezin du erabili kultura-aniztasuna nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideen aurka egiteko edo berauen irismena mugatzeko.
4. Tokiko gobernuak lehen mailako mundu eragileak dira, giza eskubideen aurrerapena defendatu eta sustatzen duten aldetik. Gainera, munduko herritarren bozeramaileak dira, eta nazioarteko sistema eta erakunde demokratikoen alde agertzen dira. Tokiko gobernuak sarean egiten dute lan elkarrekin, praktikak eta esperientziak trukatu eta beren ekintzak koordinatzen dituzte.
5. Kulturaren garapena gizarte eragileen aniztasunean oinarritzen da. Gobernu onaren barruan sartzen dira informazio-gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kultura-politikak sortzeko orduan, erabakiak hartzeko prozesuetan eta programa eta proiektuen azterketan.
6. Bakerako baldintzak ezinbestean sortu beharrak kultura garatzeko estrategiekin batera joan behar du. Gerra, terrorismoa, zapalkuntza eta bereizkeria tolerantziarik ezaren adierazle dira, eta gaitzetsi eta desagerrarazi beharrekoak.

-
7. Hiriak eta tokiko lekuak ezin hobeak dira etengabe aldatzen ari den kultura sortzeko, eta sormen-aniztasunerako esparru ere badira. Bertan, desberdina eta berezia den guztiak (jatorriak, ikusmoldeak, adinak, generoak, etniak eta gizarte-mailak) bat egiteak ahalbidetu egiten du gizakiaren garapen integrala. Nortasun eta aniztasunaren arteko elkarriketa, gizabanakoaren eta taldearen artekoa, funtsezko tresna bihurtzen da herritartasun kultural planetarioa, hizkuntza-aniztasunaren biziraupena eta kulturen garapena bermatzeko.
 8. Hirietako bizikidetzak berarekin dakar herritar, gizarte zibil eta tokiko gobernuen arteko ardura-akordioa. Ordenamendu juridikoa funtsezkoa da, baina ezin da hirietako bizikidetzak arautzeko bakarra izan. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak adierazten duen bezala (29. artikulua): “Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra”.
 9. Kultura-ondarea, ukigarria eta ukiezina, giza sormenaren lekukoa eta herrien nortasunaren oinarria da. Bizitza kulturalak herrien ohiturak balioetsi eta gorde ez ezik, hain formak sortzeko eta berritzeko aukera ematen du. Ezaugarri horrek eredu kultural zurrinak inposatzeko edozein modu baztertzen du.
 10. Kulturen berrespena eta kulturok aintzat hartu eta bideragarri egiteko abian jarri diren politikak funtsezkoak dira hiri eta lurraldeen garapen iraunkorrean, giza alderdi, alderdi ekonomiko, politiko eta sozialei dagokienez. Gaur egungo gizarteek kultura-politika publikoak zentralak izatea eskatzen dute. Toki-garapenaren kalitateak kultura-politikak eta gainontzeko politika publikoak –sozialak, ekonomikoak, hezkuntzakoak, ingurumenekoak eta hirigintzakoak- batera joatea eskatzen du.
 11. Kultura-politikek interes publiko eta pribatuaren arteko oreka bilatu behar dute, hau da, izaera publiko eta kulturaren instituzionalizazioaren artekoa. Gehiegizko instituzionalizazioak edo baliabide kulturalak esleitzeko orduan merkatuari gehiegizko lehentasuna emateak arriskuak sortu eta sistema kulturalen garapen dinamikoa oztopatzen dute. Herritarren ekimen autonomoa kultura-askatasunaren oinarria da, herritar horiek banaka edo elkarte edo mugimenduetan antolatuta egonda ere.
 12. Ondasun kulturalen sormen eta hedapenaren balioespen ekonomiko egokia – zaletu edo profesionalena, direla artisau edo industrialena, gizabanako edo taldeena- egungo munduan funtsezko osagai bihurtzen da emantzipatzeko, aniztasuna bermatzeko eta, beraz, kulturen arteko harremanetan herriek beren nortasunak berresteko duten eskubide demokratikoa lortzeko. Ondasun eta zerbitzu kulturalak, UNESCOren kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalak adierazi bezala (8. artikulua) “berekin nortasuna, baloreak eta zentzua baitaramate, bestelako ondasunak ez bezala, ezin dira salgaitzat edo kontsumo-ondasuntzat hartu”. Nabarmendu egin behar da kulturak aberastasun eta garapen ekonomikoa sortzeko faktore gisa duen garrantzia.
 13. Bizitzaren une guztietan –haurtzarotik zahartzarora arte- unibertso kultural eta sinbolikoa eskuratzea funtsezkoa da sentsibilitatea, adierazkortasuna, bizikidetzak eta herritartasuna osatzeko. Gizabanakoen nortasun kulturala dinamikoa da.
 14. Herritarrek informazioa eskuratzea eta informazio hori ezagutza bihurtzea ekintza naturala da. Hortaz, adierazpideak, bide teknologikoak eta komunikabideak bereizketarik gabe eskuratzeak eta sare horizontalak sortzeak indartu eta elikatu egiten dute toki-kulturen dinamika, bai eta ezagutzan oinarritzen den gizarte baten ezagutza kolektiboa aberastu ere.
 15. Lana giza sormenaren eremu nagusietako bat da. Bere dimentsio kulturala aintzat hartu eta garatu behar da. Lanaren antolamenduak eta enpresen inplikazioak hirian edo lurraldean, errespetatu egin behar dute dimentsio hori, giza duintasun eta garapen iraunkorraren oinarritzko elementua baita.
 16. Espazio publikoak herritar guztien ondasunak dira. Ez gizabanakoei, ez taldeei ezin zaie kendu espazio horien erabilera librea, hiri bakoitzak ezartzen dituen arauak xedatutakoaren baitan.

II. Konpromisoak

17. Kultura-aniztasuna sustatzen duten politikak ezartzea, eskaintza handia izango dela bermatzeko, eta kultura guztien presentzia —batez ere gutxiengo edo babesik gabekoena— sustatzea komunikabide eta hedabideetan, eta, horretarako, koprodukzioak eta trukeak bultzatu eta jarrera hegemonikoak saihestea.
18. Hainbat bitarteko eta tresna erabilia, ondasun eta zerbitzu kulturalak mantentzen eta handitzen laguntzea, eta horiek sustatzea. Horretarako honakoak lortu nahi dira: guztiok ondasun eta zerbitzuok eskuratzea, herritarrek sormenerako duten gaitasuna handitzea, hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna, exijentzia artistikoa, adierazpide berriak bilatu eta beste hizkuntza batzuekin esperimentatzea eta ohituren birformulazioa eta interakzioa. Horretaz gain, baita kultur mugimendu berriak izatea eta artearekiko gaitasuna antzeman eta goren mailara iristea bultzatzen duten kultur kudeaketarako tresnak izatea. Hirirtasun osoko elementu gisa, jende gehiagorengana iristeko eta parte-hartze kulturalarekiko konpromisoa adierazten dute tokiko gobernuek.
19. Tresna egokiak jartzea kultura-politika publikoen formulazio, erabilera eta ebaluazioan herritarren parte-hartze demokratikoa bermatzeko.
20. Kulturaren finantzazio publikoa bermatzea beharrezko tresnen bidez. Horien artean nabarmentzekoak: programa eta zerbitzu publikoak zuzenean finantzatzea, ekimen pribatuko jarduerak diru-laguntzen edo modu berriagoen bidez laguntzea (mikro-kredituak, arrisku-funtsak, e.a.). Halaber, kulturen inbertitzen duten enpresentzako zerga-pizgarriak emateko legezko sistemak ezar daitezke, beti ere interes publikoari begiratu behar zaiola kontuan hartuta.
21. Lurraldean elkarrekin bizi diren aukera espiritual eta erlijiosoen arteko elkarriketarako zein horien eta botere publikoaren artekorako guneak sortzea, adierazpen eskubidea eta bizikidetzaren harmonikoa bermatzeko.
22. Adierazpena bultzatzea giza duintasunerako eta gizarteratzeko oinarritzko dimentsio gisa, askatasunak erabat baliatzea oztopatzen duten bazterkeri motak (generoa, adina, etnia, ezintasuna, txirotasuna eta abar direla kausa) alde batera utzita. Bazterkeriaren aurkako borroka pertsona guztien duintasunaren aldeko borroka da.
23. Tokiko kulturen iraupena eta garapena sustatzea, lurraldearekiko harreman historiko eta interaktiboa gordetzen baitute.
24. Beste lurralde batzuetako kulturak dituzten pertsonen adierazpena eta parte-hartzea bermatzea. Aldi berean, etorkinek harrera-komunitatearen kultura eskuratu eta kultura horretan parte hartzeko beharrezko diren bitartekoak jartzeko konpromisoa hartzen dute tokiko gobernuek. Elkarrekiko konpromiso hori, hiri bakoitzaren nortasuna osatzen lagundu duten bizikidetzaren eta kulturartekotasun prozesuen oinarria da.
25. Kultur eragina ebaluatzeko moduak sustatzea, hirien bizitza kulturalari aldaketa esanguratsuak eragin ahal dizkieten ekimen publiko edo pribatuak kontuan hartzeko.
26. Hirigintza-kudeaketan eta lurralde- eta hirigintza-plan guztietan kultur alderdiak aintzat hartzea. Horretarako, toki-ondare kulturala eta aurreko belaunaldien jarauntsiaren babesa bermatzeko dituzten beharrezko legeak, arauak eta erregelamenduak ezartzea.
27. Hiriko espazio publikoak sustatzea eta harremanetarako eta bizikidetzarako leku kultural gisa duten erabilera bultzatzea. Espazio publiko eta ekipamendu kolektiboaren estetika-erakundeak sustatzea.

-
28. Kulturari zuzendutako politika eta baliabideen deszentralizazioa helburu duten ekintzak bultzatzea. Horretarako: aldiriak deitutako sormenaren orijinaltasuna legezkozat jotzea, gizarte sektore ahulei laguntzea eta herritar guztiek, inolako diskriminaziorik gabe, kultura eta ezagutzarako duten eskubidearen alde egitea. Horrek ez ditu baztertu behar erantzukizun zentralak eta, bereziki, edozein deszentralizazio-prozesuk eskatzen duen finantzazioari dagozkionak.
 29. Lurralde bereko tokiko gobernuek dituzten kultura-politiken arteko koordinazioa bereziki sustatzea. Bakoitzaren nortasuna, bakoitzak osotasunari egiten dion ekarpena eta herritarren eskura jarritako zerbitzuen eraginkortasuna aintzat hartzen dituen elkarrizketa bidezko koordinazioa.
 30. Tokiko industria kulturalen eta komunikabideen paper estrategikoa bultzatzea, toki-nortasunari egiten dioten ekarpenagatik, sormen-jarraipenagatik eta enplegua sortzeagatik.
 31. Proiektuen eta tokiko zein munduko ezagutza kulturalaren dimentsio digitala sozializatzea eta jendearen eskura jartzea. Informazio- eta komunikazio-teknologiak ezagutza kulturala herritarren esku jartzeko baliatu behar dira.
 32. Tokian tokian komunikabide publikoak zabaltzea xede duten politikak bultzatzea, bai eta komunitatearen interesei jarraiki horiek garatzea, aniztasun, gardentasun eta erantzukizun printzipioen haritik.
 33. Adierazpen askatasuna bermatzeko mekanismo, tresna eta baliabideak sortzea.
 34. Egileen eta artisten eskubide moralak eta bidezko ordainsaria errespetatu eta bermatzea.
 35. Sortzaileak eta artistak hiri eta lurraldeekin konpromisoa hartzea gonbidatzea: gure gizartearen arazo eta gatazkak identifikatzen, bizikidetzeta eta bizi-kalitatea hobetzen, herritar guztien sormen eta kritikarako gaitasuna handitzen eta, batez ere, hirien erronkak konpontzen lagunduz.
 36. Irakurketa eta liburuen hedapena bultzatzen dituzten politikak eta inbertsioak ezartzea, baita herritar guztiek munduko eta tokiko literatura eskura izatea ahalbidetzen dutenak ere.
 37. Kulturaren izaera publiko eta kolektiboa bultzatzea, bizikidetzari lotutako agerraldi guztietan jendearen arteko harremanak sustatuta: zuzeneko ikuskizunak, zinema, jaiak, e.a.
 38. Kultur eta hezkuntza arloetako politiken arteko koordinazio-guneak sortzea; sormena eta sentsibiltatea sustatu, eta lurraldeko adierazpen kulturalen eta hezkuntza-sistemaren arteko harremana bultzatzea.
 39. Ondasun eta zerbitzu kulturalak bermatzea ezinduei, ekipamendu eta ekitaldi kulturaletara sarbidea erraztuz.
 40. Kultur ekipamenduen eta ezagutzarekin lan egiten duten erakundeen arteko harremanak sustatzea: unibertsitate, ikerketa-zentro, ikerkuntza arloko enpresak.
 41. Herritarren artean kultura zientifikoa eta teknologia hedatzera bideratutako programak sustatzea, batez ere, zientzia-ezagutza berrien balizko aplikazioek interes publikoko gai etiko, sozial, ekonomiko eta politikoak sortuko dituztela uste bada.
 42. Kultura-ondarea babesteko legezko tresnak ezarri eta ekintzak inplementatzea inbentario, erregistro, eta katalogoak baliatuta. Halaber, sustatzeko eta zabalpena emateko edozein ekintza baliatzea (hala nola: erakusketak, museoak, ibilbideak, e.a)
 43. Tokian tokiko edo lurraldeko eremu publikoan sortutako dokumentu-ondarea babestu, balio berria eman eta hedatzea (udalak berak sustatua edo entitate publiko eta pribatuekin batera). Horretarako udalean eta lurraldean horretarako sistemak sortzea bultzatuko da.

-
44. Planetako biztanleek kultura-ondareak ezagutu ditzaten lanean jardutea. Halaber, sektoreko adituekin batera, bisitatzen diren udalerrri eta lurraldeetako kultura eta ohiturekiko begirunea duen turismoa sustatzea.
 45. Elkarrekikotasun-printzipioan oinarritutako lateralitate-aniztasun prozesuak jorratzen dituzten politikak garatu eta inplementatzea. Nazioarteko kultura-lankidetzaren ezinbesteko tresna da elkartasuneko giza komunitatea osatzeko. Lankidetzaren horrek artista eta kultura operadoreen zirkulazio librea sustatzen du (batez ere ipar-hegoaldeko mugaren bidez) herrien arteko elkarriketarako, kolonialismoak sortutako desorekak gainditzeko zein lurraldeen arteko integrazioarako funtsezko ekarpen gisa.

III. Gomendioak

TOKIKO GOBERNUEI

46. Tokiko Gobernuak agiri hau udal gobernuko organoei aurkeztu eta onestera gonbidatzea. Halaber, gizartearekin eztabaida zabalagoa egitera ere bai.
47. Tokiko politiken baitan kulturaren zentralizazioa bermatzea, eta horretarako, hiri edo lurralde bakoitzean kulturaren 21 agendak egitea herritarren parte-hartze estuarekin eta plan estrategikoekin koordinatuta.
48. Kultura kudeatzeko mekanismoei buruzko hitzarmen-proposamenak egitea erakundeetako beste maila batzuekin, subsidiarotasun-printzipioa errespetatuta.
49. 2006. urtea baino lehen, Kulturaren 21 Agendaren hedapenaren berri emango duen kultura-adierazleen sistema bat proposatzea, metodo orokorretatik abiatuta, jarraipena eta alderaketak egitea erraztu dadin.

ESTATUETAKO GOBERNUEI ETA NAZIOEI

50. Kulturaren arloko esku-hartze publikorako tresnak ezartzea, honakoak kontuan hartuta: herritarren beharrak handitu egin direla, egun dauden programa eta baliabideak ez direla nahikoak eta aurrekontuen esleipenetan lurralde-deskontzentrazioak duen garrantzia. Halaber, lan egin behar da kulturari nazioaren aurrekontuaren %1, gutxienez, esleia dakion.
51. Kultura arloko lege, erregelamendu eta finantzatze-sistema berriak ezartzean, kontsulta eta hitzarmenerako mekanismoak ezartzea tokiko gobernuekin, bai zuzenean bai beren sare eta federazioen bidez.
52. Kulturaren zirkulazio librea eta kultura-ondasun eta zerbitzuak baldintza-berdintasunean trukitzea baldintzatzen duten merkataritza-itunak egitea saihestea.
53. Kultura- eta komunikazio-industrien kontzentrazioa saihesteko xedapenak onartzea, eta toki eta lurraldeetako erakundeekiko lankidetzaren sustatzea, batez ere produkzio-arloan.
54. Lurraldeetan erakusten diren ondasun kulturalen jatorriaren aipamena bermatzea, eta beste herri batzuen ondare historikoko ondasunen lege kanpoko trafikoa saihesteko neurriak hartzea.
55. Kultura-aniztasunari buruzko nazioarteko akordioak estatu edo nazioetan ezartzea, batez ere UNESCOren Kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (2001eko azaroan egindako 31. batzar nagusian onetsia), eta Estokolmoko gobernu arteko batzarrean onartutako ekintza-plana (1998), garapenerako kultura-politikei buruzkoa.

NAZIOARTEKO ERAKUNDEEI

HIRIETAKO ERAKUNDEEI

56. Hiri eta Tokiko Gobernu Batuei Kulturaren 21 Agenda beren kultura-programetako erreferentziazko dokumentu gisa hartzea gomendatzen diegu, baita 21 Agenda onartu ondoko prozesuan koordinazio-papera hartzea ere.
57. Hiri eta tokiko gobernuen kontinente-sareak (batez ere 21 Agenda bultzatu zutenak: Interlocal, Eurocities, Sigma, Mercociudades, besteak beste) ekintza tekniko eta politikoko programen barruan agiri hau kontuan hartzera gonbidatzen ditugu.

NAZIO BATUEN AGENTZIA ETA PROGRAMEI

58. UNESCOri: nazioarteko tresna juridikoa edo 2005ean egingo den kultura-aniztasunari buruzko batzarra prestatzeko lanetan Kulturaren 21 Agenda dokumentu hau erreferentziazko dokumentutzat har dezala.
59. UNESCOri: hiriak kultura-aniztasunaren printzipioak (batez ere, bizikidetzatza, demokrazia eta parte-hartzeari buruzkoak) islatzen direneko leku gisa aintzat hartzea; eta tokiko gobernuek haien programetan parte hartzeko mekanismoak ezartzea.
60. Garapenerako Nazio Batuen Programari kultura eta garapenari buruzko analisietan sakondu dezala eta giza garapenaren indizearen (GGI) kalkuluetan adierazle kulturalak sar ditzala gomendatzen diogu.
61. Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Saileko Garapen Iraunkorreko Atalari, 21 Agendaren jarraipenaren arduraduna den aldetik, iraunkortasunaren dimentsio kulturala gara dezala kulturaren 21 Agenda honen printzipio eta konpromisoei jarraiki.
62. Nazio Batuak – HABITATI, hiri-politiken dimentsio kulturalaren garrantzia egiaztatzen duen oinarritzko agiritzat hartzea.
63. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaletarako Nazio Batzuen Batzordeari, hiri-dimentsioa sar dezala eskubide kulturalen eta gainontzeko giza eskubideen artean egiten duen analisisan.

GOBERNU ARTEKO ETA NAZIOZ GAINDIKO ERAKUNDEEI

64. Munduko Merkataritza Antolakundeari, ondasun eta zerbitzu kulturalak beren negozioetarako kanpo uztea. Ondasun eta zerbitzu kulturalen trukeen oinarriak 2005ean egingo den kultura-aniztasunari buruzko batzarra bezalako nazioarteko tresna juridiko berri batean ezarri behar dira.
65. Kontinenteetako erakundeei (Europar Batasuna, Mercosur, Afrikaren Batasuna, Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkarteak), kultura bere lana aurrera ateratzeko oinarritzko zutabe gisa hartzea. Nazio-eskumenak eta subsidiarotasuna errespetatuta, kontinente mailako kultura-politika behar da, ondoko printzipioetan oinarritua: kulturaren esku-hartze publikoaren legitimitatea, aniztasuna, parte-hartzea, demokrazia eta sareko lana.
66. Kideetasun kulturaletatik abiatuta ezarritako erakundeei (adibidez, Europako Kontseilua, Arabiar Estatuena Liga, Iberoamerikako Estatuena Erakundea, Frankofonoen Nazioarteko Erakundea, Commonwealth, Hizkuntza Portugesaren Herrialdeen Komunitatea, Batasun Latinoa) elkarrizketak eta proiektuak elkarrekin sustatzeko, horien bidez zibilizazioen arteko ulermen handiagoa lortzeko, eta elkar ezagutu eta elkarrekiko konfiantza sortzeko; hori guztia, bakearen oinarri.
67. Kultura Politiken Nazioarteko Sareari (estatuak eta kultura ministroak) eta Kultura Aniztasunerako Nazioarteko Sareari (artisten elkarteak), hiriak kultura-aniztasunaren funtsezko lekutzat hartzea, gobernuek parte-hartzeko mekanismoak ezartzea eta 21 Agendan jasotako printzipioak beren jardueran aplikatzea.

Kultura Batzordea – Hiri eta Toki Gobernu Batuak

Committee on culture – United Cities and Local Governments – UCLG

Commission de culture – Cités et Gouvernements Locaux Unis – CGLU

Comisión de cultura – Ciudades y Gobiernos Locales Unidos – CGLU

Kulturaren 21 Agenda hainbat hizkuntzatan dago eskuragarri: ingelesa, frantsesa, gaztelania, albaniera, alemanera, arabiera, bulgariarra, katalana, galiziera, italiarra, japoniera, persiarra, poloniarra, portugaldarra, errusiera, serbiera, turkiera eta ukrainiera. Aniztasun kultural eta linguistikoarekiko duen konpromisoa dela eta, kultura batzordeak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko gonbita egiten du.

The Agenda 21 for culture is available in English, French, Spanish, Albanese, Arabic, Bulgarian, Catalan, Galician, German, Italian, Japanese, Persian, Polish, Portuguese, Russian, Serbian, Swedish, Turkish and Ukrainian. Committed to cultural and linguistic diversity, the Committee on culture encourages its translation into more languages.

L'Agenda 21 de la culture est disponible en anglais, français, espagnol, albanais, allemand, arabe, bulgare, catalan, galicien, italien, japonais, persan, polonais, portugais, russe, serbe, suédois, turc et ukrainien. Engagée à la diversité culturelle et linguistique, la Commission de culture encourage sa traduction dans d'autres langues.

La Agenda 21 de la cultura está disponible en inglés, francés, español, albanés, alemán, árabe, búlgaro, catalán, gallego, italiano, japonés, persa, polaco, portugués, ruso, serbio, sueco y ucraniano. Comprometida con la diversidad cultural y lingüística, la Comisión de cultura anima a su traducción a otras lenguas.

Edited: 18 June 2012

**United Cities and Local Governments
Cités et Gouvernements Locaux Unis
Ciudades y Gobiernos Locales Unidos**

carrer Avinyó, 15
E-08002 Barcelona
Espanya

Tel: +34 93 342 87 50
Fax: +34 93 342 87 60
info@cities-localgovernments.org
www.cities-localgovernments.org

**Ajuntament de Barcelona -
Institut de Cultura**

Palau de la Virreina - la Rambla 99
E-08002 Barcelona
Espanya

Tel: +34 933 161 000
Fax: +34 933 161 020
agenda21cultura@bcn.cat
www.bcn.cat/cultura

www.agenda21culture.net



**United Cities and Local Governments
Cités et Gouvernements Locaux Unis
Ciudades y Gobiernos Locales Unidos**



**Ajuntament de Barcelona
Barcelona Cultura**